

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA

ORDAINKETAREN ETA EMAITZEN ARTEKO LOTURA.

Emaitzekin zuzenean erlazionatuta dagoen ordainketaren zatia ordainsari aldakorra da. Administrazio Kontseiluak identifikatutako kolektiboarentzat onartzen dituen Ordainsari aldakorraren Planen arabera egituratzen da, orokorrean.

Oro har, Erakundearen indarrean dauden ordainsari aldakorreko sistema guztiek honako printzipioak dituzte:

1. Sistema guztiek, salbuespenik gabe, adierazle kuantitatiboek gain, adierazle kualitatiboak dituzte, bereziki, lanaren ebaluazioa..
2. Erakundeko ordainsari aldakorraren sortzapenari dagokionez, lorpena honakoen mende dago: Erakundearen emaitza globalak, eredu bakoitzean zehaztutako helburu kuantitatiboek gutxiengo bat lortzea, eta aldeko ebaluazio kualitatibo indibidual bat lortzea.
3. Ia sistema guztiek daukate gutxienez adierazleren bat arriskuaren arabera egokitua, kasu gehienetan, kreditu-arriskuari dagokiona (kreditu erakundeak). Gainera, adierazle korporatiboak dituzten sistemek kaudimen-adierazleak dituzte.
4. Kontrol-adierazleen artean, barne-kontrolaren funtzioei aplikatu ahal zaizkien sistema korporatiboek funtzioaren kalitatearekin erlazionatutako metrikak dituzte, eta sare komertzialaren sistemen artean araudia betearazteko aldagaiak sartzen dira, orokorrean. Horiek banku-praktika egokiak eta arauak betetzen direla bermatzen dute.

KUTXABANKek klausula bat ezarri du ordainsari aldakorreko sistema guztietan; horren arabera, likidazioa Erakundearen emaitza positiboek eta kapital-oinarri solido bat izateko emaitza nahikoen mende egongo da. Gerta liteke ordainsari aldakorreko sistema etetea edo bertan behera geratzea, aipatutako emaitza horien bilakaera ona ez izatekotan.

Gainera, zuhurtziazko araudi esparruaren barruan jasotako proportzionaltasun eta materialtasun printzipioekin, identifikatutako kolektiboaren ordainsari aldakorrak sistema batzuk ditu barne likidazioa emaitzen eta arrisku/kaudimen adierazleen expost ebaluazio baten mende jartzeko, erakundearen azpiko ziklo ekonomiko bati eta epe luzerako interesei kasu eginez.